

Añarbeko errekek hobetzen


Arturo Elosegi eta Joserra Díez

Euskal Herriko Unibertsitatea. Landare-Biologia eta Ekologia Saila

Añarbe errekek Goizueta, Oiartzun, Arano eta Errenteriako udalerrriak zeharkatzen ditu. Ikazkin, itzai, ganaduzale, baserritar, basomutil eta kontrabandisten lurrak izan dira mendeetan zehar orain dela gutxi arte. Orain, Natura 2000 Sarean egonda, naturaren kontserbaziorako zuzenduta dago beren kudeaketa, bioaniztasuna "ekoiztuz". Aiako Harriko Parke Natural eta Garrantzi Komunitarioko Lekuaren barruan egiten ari diren lanen artean, Añarbeko urtegiara doazen erreken egoera azter-

tu eta hobetu nahian ari gara 2006. urtetik eta LIFE Proiektu europarraren baitan.

Erreka hauek ikusita, batek pentsa lezake zer hobetu askorik ez dutela, baina bertan bizi diren animaliek baietz erakusten digute, gauzak ez daudela bere onenean. Hain zuzen, erreketako uren kalitatea ezin hobea den arren, amurrain gutxi eta txikiak aurkitzen dira bertan, eta ur-satorra, gure erreketako bitxirik preziatuena, Artikutzan oso ugaria da baina Añarben ez da bizi.



Erreken egoera kaskarra

Egoera kaskar horren arrazoia zein izan daitekeen ez dago guztiz argi. Batzuk lertxunei egozten diete errua, beste batzuk zentral hidroelektrikoei, eta beste faktore batzuk ere izango dira ziurrenik. Ikusi dugunez, erreka hauetako batzutan, Latse eta Añarben batez ere, arazoaren parte bat behintzat habitataren egoera kaskarra da. Kalitateko urak ditugu, bai, baina erreken ubideak ez daude ondo: animalientzat ezkutalekurik ez da ia, eta horrela aukera gutxi dago, bai lertxunez babesteko, baita uholde edo beste edozein arazori aurre egiteko.

Babes eskasi horren arrazoia aspaldiko giza-jardueretan dago. Duela mende erdirarte Añarbe ikazkinnez beteta egon zen, eta hauek mendiko egur guztia biltzen zuten txondorretarako. Horren ondorioz, gaur egur hil gutxi dugu baso zein erreketan. Mundu osoko ikerlariak erakutsi dutenez, ordea, egur hilak garrantzi ekologiko handia du.

Erreketan, tarteka erortzen diren zuhaitzek erreka presatu egiten dute, eta presa horien inguruan sortzen diren putzu sakonak dira arrain handien ezkutaleku, eta uholdeetan babesleku. Gainera, presa horiek lehorretik datorren orbelari eusten diote, horrela errekan bizi diren zomorroek bazka gehiago izaten dute, eta arrainak ere ugaritu egiten dira. Hain

zuzen, Añarbeko urtegira sekulako orbel pilak sartzen dira urtero. Horrek uraren kalitatea kaltetu dezake, eta gainera erakusten du erreken egoera ez dela behar bezain ona.

Arazo horri irtenbidea eman nahian, hainbat erreketan egur hila sartu dugu, erreka basatietan gertatzen diren antzeko presak eratuz. Gure hipotesia, da egurra sartzean errekek orbel gehiago metatuko duela, eta ornogabeak zein arrainak ugarituko direla, eta errekek ura garbitzeko duen gaitasuna handituko dela. Horrez gain, ubide konplexuagoak sortuko direla uste dugu, bizidun mota gehiagori bizitzeko aukera eskainiz, eta uholdeen aurrean babes gehiago. Lanak ez dira amaitu, baina oraingoz lortu ditugun emaitzek erakusten dute egur hilak eragin handia eta berehalakoa duela errekan; honek Euskal Herriko beste zenbait erreken egoera hobetzeko bidea ere erakusten du.

Beraz, kanpotar batzuk Añarbeko erreketan gora eta behera ikusten badituzu, eskuetan tresna susmagarriak dituztela, ia ziur gutakoren bat izango da. Gustura azalduko dizugu zertan ari garen. Edozein modutan, ez zara lehenengoa izango, Ingalaterra, Irlanda, Alemania, Estatu Batuak, Zelanda Berria eta Suitzako adituak Añarbeko lan berritzaile hauek ikustera hurbildu dira dagoeneko. ■